

ikasmina:

Ikasmina DoKS:

Gipuzkoan bizitza osoko ikaskuntzari
buruzko dokumentuak

Biztanleria okupatuaren parte hartzea bizitza osoan zeharreko ikaskuntzan

53. dokumentua

2017ko maiatza

Gipuzkoa, ikasten duen lurraldea.
Gipuzkoa, un territorio que aprende.



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**

Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune
eta Lurralde Oreko Departamentua
Departamento de Promoción Económica,
Medio Rural y Equilibrio Territorial

AURKIBIDEA

1. Sarrera	3
2. Lanean ari diren herritar helduen kualifikazioa.....	4
2.1. 25 eta 64 urte arteko lanean ari diren pertsonak Gipuzkoan.....	4
2.2. Kualifikazioaren balorazioa lanpostuarekiko	7
3. Lanean ari den pertsonen etengabeko ikaskuntza.....	9
3.1. Lanean ari diren eta ikasten duten pertsonak	9
3.2. Partaidetza jarraitua ikaskuntzan	12
3.3. Zer ikasten den eta nola ikasten den	14

1. Sarrera

Gipuzkoaren helburua ikasten duen lurralde bihurtzea da, ezagutzaren gizartearen ardatza baita. Helburu horretan, ezagutzaren hobekuntzan jarrera irekia eta aktiboa izatea da bizitza osoko ikaskuntza arrakastarekin hasteko eta amaitzeko oinarria.

Helburu horrekin, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentuaren ustez, pertsonen ikaskuntza da Gipuzkoako gizartearen aurrerabidea, oparotasun ekonomikoa, gizartearen ongizatea eta errealizazio pertsonala lortzeko oinarizko ardatzetako bat; hau da, Sozialki Arduratsua den Lurraldea lortzeko zutabeetako bat.

Hurbilketa hori oinarri hartuta, bizitza osoko ikaskuntzak eguneroko bizitzan pertsonak egiten dituzten jarduera guztiak biltzen ditu. Jarduera horiek bizitzako alor guztietan ezagutzak, jarrerak eta prestakuntzak hobetzera zuzenduta daude: alor pertsonalean, zibikoan, sozialean edo profesionalean. Hori dela eta, oso garrantzitsua da helburu horretarantz iristeko aurrerapena ezagutu eta neurtzea, betiere, Gipuzkoako helduek egindako ikaskuntza-jardueren jarraipenean oinarrituta.

Dokumentu hau bizitza osoko ikaskuntza osatzen duten bi modalitatetan, ikaskuntza formaleko eta ez formaleko modalitatetan, enplegua dutela dioten edota lanbide bat garatzen ari diren Gipuzkoako pertsona helduek garatutako ikaskuntza-jarduerarekin lotuta lortutako emaitzetan oinarritzen da. Era berean, aipatutako ikaskuntza egiteko unea ere kontuan hartzen da, zer helbururekin egiten den, eta ikasten jarraitzeko oztopoak eta aurreikuspenak. Azkenik, gai horietako bakoitzak adinari, enplegu-modalitateari eta lortutako ikasketa mailari dagokionez, beste aldagai batzuen artean, pertsonaren profila ere hartzen du aintzat.

2. Lanean ari diren herritar helduen kualifikazioa

2.1. 25 eta 64 urte arteko lanean ari diren pertsonak Gipuzkoan

25 eta 64 urte arteko lanean ari den pertsonen % 40k goi mailako ikasketak ditu

Atxikitako koadroak bizitza osoko ikaskuntzari buruzko inkestan parte hartu duten Gipuzkoako 25 eta 64 urte arteko lanean ari diren pertsonen¹ ezaugarri nagusiak biltzen ditu.

Arlo hauek nabarmendu behar dira:

- 25 eta 64 urte arteko lanean ari den biztanleriari dagokionez, gizonek (% 53,9) emakumeek baino proportzio zertxobait altuagoa dute (% 46,1).
- Adinaren arabera, ikasten duten eta lanean ari diren pertsonen banaketa orekatuta dago. Ildo horretatik, 25-34 urteko segmentuak % 22,1eko ekarpena egiten du. Ehunekoak altuagoak dira segidako adin-segmentuetan – 35-44 urte (% 33,8) eta 45-54 urte (% 22,5) – eta adinez nagusiagokoetan behera egiten du – 55-64 urte (% 21,5).
- Lanean ari diren ia hamar pertsonatik lauk dituzte bigarren mailako ikasketak edota ikasketa profesionalak (% 40,5). Oso antzekoa da hirugarren mailako ikasketak dituzten kolektiboaren proportziora ere (% 40,1). Biztanleriaren % 19,4k adierazi du gehienez lehen mailako ikasketak dituela.

¹ Ordaindutako enplegua duten pertsonen definizioa

1. taula 2017an lanean ari den biztanleria heldua sexuaren, adinaren, ikasketa mailaren arabera

25 - 64 urteko pertsona landunak (%)

	%
Sexua	
Emakumeak	46,1
Gizonak	53,9
Adina	
25 - 34 urte	22,1
35 - 44 urte	33,8
45 - 54 urte	22,5
55 - 64 urte	21,5
Ikasketa maila	
Lehen mailakoak	19,4
Bigarren mailakoak	40,5
Goi mailakoak	40,1
Guztira	100

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreako Departamentua.

Soldatapeko herritarrak nabarmen nagusi dira, kontratu finkoarekin eta lanaldi osoz lanean

Enpleguaren ezaugarriei dagokienez, honako hau adierazi behar da:

- 25-64 urteko lanean ari den biztanleriaren % 76,1 soldatapekoa da eta % 23,9k beste egoera profesional batzuk hartzen ditu (autonomoak, kooperatibista eta abar).
- Iraupen mugagabeko kontratu batekin lan egiten duen eta lanean ari den pertsona taldea nagusitzen da (% 81,6); aldiz, aldi baterako kontratuarekin lan egiten duten eta lanean ari diren pertsonak % 18,4 dira.
- Lanean ari den biztanleriaren % 80,4k lanaldi osoan egiten du lan eta % 19,6k berriz, lanaldi partzialean.

2. taula **2017an lanean ari diren herritar helduak egoera profesionalaren, kontratu motaren eta lanaldi motaren arabera**

25 - 64 urteko pertsona landunak (%)

	%
Egoera profesionala	
Soldatapeko langilea/a	76,1
Bestelakoa (autonomoa, kooperatibista,...)	23,9
Kontratu mota	
Kontratu mugagabeak	81,6
Aldi baterako kontratua	18,4
Jardunaldi mota	
Jardunaldi osoa	80,4
Jardunaldi partziala	19,6
Guztira	100

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.

2.2. Kualifikazioaren balorazioa lanpostuarekiko

Lanean ari diren hamar pertsona heldutik zazpiren ustez, duten titulazio akademikoak ondo islatzen du bere ahalmena edo gaitasun profesionalak.

25 eta 64 urte arteko lanean ari den biztanleriaren % 74,1en ustez, bere titulazioak ondo islatzen ditu gaitasuna edota konpetentzia profesionalak. % 22,5ek uste du bere gaitasunak ez daudela behar bezala islatuta titulazio akademikoan.

Ehuneko banaketa egonkor mantentzen da azken bi urteetan, ia-ia aldaketarik izan gabe.

3. taula Zure titulazio akademikoak ahalmen edota gaitasun profesionalak behar bezala islatzen dituela uste al duzu?

25 - 64 urteko pertsona landunak (%)

	2016	2017
Bai	79,6	74,1
Ez	16,4	22,5
Ez daki/Ez du erantzuten	3,9	3,4

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.

Lanean ari diren hamar pertsonatik zortzik uste dute kualifikazio egokia dutela gaur egun egiten duten lanerako

25 eta 64 urte arteko lanean ari diren biztanleriaren % 81,8k uste du bere kualifikazioa egokia dela egiten duten lanerako. Bestalde, lanean ari den biztanleriaren % 4,5ek uste du ez duela nahikoa kualifikazio.

Nabarmendu beharrekoa da % 13,4k uste duela aipatutako lanerako beharrezkoa dena baino kualifikazio altuagoa duela, eta talde horren baitan, % 19,2 hirugarren mailako ikasketak dituzten pertsonak osatzen dute.

4. taula Zure kualifikazioari/titulazio akademikoari eta gaur egun egiten duzun lanari dagokionez, uste duzu...

25 - 64 urteko pertsona landunak (%)

	Guztira	Ikasketa maila		
		Lehen mailakoak	Bigarren mailakoak	Goi mailakoak
Kualifikazio altuegia daukat	13,4	8,2	10,2	19,2
Kualifikazioa egokia da	81,8	85,7	83,9	77,8
Ez daukat kualifikazio nahikoa	4,5	6,1	5,4	3,0
Ez daki/Ez du erantzuten	0,2	--	0,5	--

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.

Azkenik, lanean ari den populazioaren % 62,6k uste du egindako lanaren maila profesionala kualifikazio ertainekoa dela. Kopuru horrek bikoiztu egiten du egindako lanaren maila profesionala kualifikazio altuari dagokiola uste dutenen taldea. Azkenik, hamar pertsonatik batek uste du egiten duen lanaren maila profesionala kualifikazio baxukoa dela. (% 9,7).

Eraitza hori lortutako prestakuntza mailaren banaketarekin kontraesanean egon daiteke; eraitza % 19,4, % 41,5 eta % 41,4koa da lehen mailako, bigarren mailako eta hirugarren mailako ikasketei dagokienez. Hezkuntza formalaren edo titulazioaren arabera banaketan dagoen aldeak, postuaren kualifikazioaren aurrean, beste kompetentzia eta esperientzia mota batzuk aipatzen ditu.

5. taula Garatutako lanaren maila profesionalaren balorazioa (%)

25 - 64 urteko pertsona landunak (%)

	2017
Baxua (kualifikazio baxua, taldeko ardurarik gabe)	9,7
Bitartekoa (bitarteko kualifikazioa, taldeko ardurarik gabe edo batzuekin)	62,6
Altua (kualifikazio altua, taldeko ardurarik gabe edo batzuekin)	27,7

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.


3. Lanean ari den pertsonen etengabeko ikaskuntza

3.1. Lanean ari diren eta ikasten duten pertsonak

Gipuzkoako lanean ari den biztanleria helduaren erdiak (% 50,4) ikasi egiten du

Gipuzkoan bizi den eta lanean ari den biztanleriaren % 50,4k etengabeko ikaskuntza-jardueraren batean hartu du parte 2017an zehar. Ehunekoak 2016koaren antzekoa da (% 51,5). Gainera, jokaera antzekoa da emakumeen eta gizonen artean.

1. grafikoa Lanean ari diren pertsonak eta ikaskuntzan duten parte-hartzea sexuaren arabera




Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.

Ikaskuntza arloko partaidetza gutxitu egiten da adinak gora egin ahala

Aintzat hartutako adin talde bakoitzarentzako ikaskuntza arloko partaidetzak honako hau erakusten du:

- 25 eta 54 urte arteko lanean ari diren pertsonen erdiek baino gehiagok ikaskuntza-jardueretan parte hartu dute azken bi urteetan (2016 eta 2017).
- 25 eta 34 urte artean, partaidetza-indizea % 50ekoa da. Aldiz, indize hori, 35-44 urte arteko taldearentzat, % 57,3koa da, eta 45 eta 54 urte artekoetan, % 57koa.
- 55 eta 64 urte arteko lanean ari diren pertsonen % 33,0k ikaskuntza-jardueretan parte hartu zuen azken hamabi hilabetetan; ehuneko hori gainerako adin taldekoentzat adierazitakoa baino baxuagoa da.

2. grafikoa Lanean ari diren pertsonak eta ikaskuntzan duten parte-hartzea sexuaren arabera



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentua.

Ikaskuntzako partaidetzak gora egiten du lortutako ikasketa mailaren arabera


Lortutako ikasketa formalen maila zenbat eta handiagoa izan, ikaskuntza-jardueretako parte-hartzea orduan eta handiagoa da. Fenomeno hori komuna da biztanleria helduarentzat, baita lanean ari den biztanleriaren taldearen baitan ere.

Hirugarren mailako ikasketak dituzten lanean ari den biztanleriaren % 62,6k ikaskuntza-jardueretan parte hartu du. Kopuru horrek bikoiztu egiten du lehen mailako ikasketak dituen eta lanean ari den biztanleria (% 33,7), eta bigarren mailako ikasketak edota ikasketa profesionalak dituen eta lanean ari den biztanleriaren kasuan, tarteko balioa du.

Aintzat hartutako bi urteetan (2016 eta 2017) ez dago alde aipagarririk; kontuan izandako ikasketen hiru mailatarako antzeko balioak daude.

3. grafikoa Lanean ari diren pertsonak eta ikaskuntza parte-hartzea. Ikasketa maila

25 - 64 urteko pertsona landunak (%)




Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.

3.2. Partaidetza jarraitua ikaskuntzan

Lanean ari diren biztanleria helduaren % 21,5ek modu jarraituan ikasten du

2016ko eta 2017ko emaitzak erakusten digunez, ikaskuntzan, partaidetza jarraituan, parte-hartzeak gora egin du (% 18,6tik % 21,5era). Gainera, parte-hartzea antzekoa da emakumeen (% 21,5) eta gizonen (% 21,6) artean.

4. grafikoa Lanean ari diren pertsonak eta ikaskuntzako parte-hartze jarraitua sexuaren arabera



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.


Ikaskuntzako parte-hartze jarraitua altuagoa da lanean ari den biztanleria gaztearen artean

25 eta 45 urte arteko lanean ari den pertsona taldea, ikaskuntzako parte-hartze jarraituko indizeari dagokionez, taldearen balio orokorraren gainetik dago (% 26,8).

Era berean, indizea altuagoa da 25-34 urte arteko eta 35-44 urte arteko adin taldeetarako (% 26,8 eta % 24,6 hurrenez hurren). Bestalde, 45-55 urte arteko eta 55-64 urte arteko taldearentzako parte-hartze indizea % 19,3koa eta % 13,8koa da hurrenez hurren.

Azkenik, adierazi behar da 2016 eta 2017 artean, ikaskuntza-jardueretan, igoera txiki bat izan dela parte-hartze jarraituan adin talde guztientzat, gazteen kasuan izan ezik.

5. grafikoa Lanean ari diren pertsonak eta ikaskuntzako parte-hartze jarraitua adinare arabera




Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.

Ikaskuntza iraunkorreko indizeak ehuneko 22 puntuko aldea adierazten du lanean ari diren herritarrek lortutako ikasketa mailaren arabera

Lehen mailako ikasketak dituzten eta lanean ari den biztanleriaren ikaskuntza-jardueretako parte-hartze jarraituaren indizea % 10,2koa da (2016an baino 4,8 puntu altuagoa). Bien bitartean, bigarren mailako ikasketak edota ikasketa profesionalak dituzten eta lanean ari diren pertsonena % 16,1era iritsi da. Azkenik, hirugarren mailako ikasketak dituzten eta lanean ari den biztanleria % 32,5era iritsi da.

6. grafikoa Lanean ari diren pertsonak eta ikaskuntzako parte-hartze jarraitua ikasketa mailaren arabera



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.



3.3. Zer ikasten den eta nola ikasten den

2016an eta 2017an ikaskuntza ez formala nagusitzen da

Biztanleriak helduak² egindako ikaskuntza-jarduerak bi motatakoak dira:

- Ikaskuntza formala; hau da, titulu edo ziurtagiri ofizial bat lortzea xede duen prestakuntza egituratua biltzen duena.
- Ikaskuntza ez-formala³; ezagutzak edo abileziak eskuratzeko ikaskuntza-eredu jakin bati dagokio, baina ez du titulu ofizialik biltzen.

6. taula Ikasten duten helduak, ikaskuntza motaren arabera (%)

	Biztanleriaren %	
	2016	2017
25 eta 64 urte bitarteko biztanleria landuna	51,5	50,4
Formala	10,4	10,1
Ez Formala	45,2	45,0

Erantzun anitza

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentua.

Lan egiteko adinean dagoen biztanleria helduaren artean (25 eta 64 urte arteko biztanleak sartzen ditut sail honetan) Ikaskuntza ez-formala (% 45,0) nagusitzen da nabarmen ikaskuntza ez formalaren gainetik (% 10,1). Ikaskuntza formalaren eta ikaskuntza ez formalaren arteko aldea % 34,9koa da eta egoera hori antzekoa da 2016an eta 2017an.

7. taula Jarduerak egin diren unea eta finantzaketa

	Ikaskuntzako jardueretan parte hartzen duten persona landunen %	
	2016	2017
Bai, ordaindutako lanorduetan bakarrik edo batez ere	40,9	35,1
Ez, batez ere edo bakarrik ordaindutako lanorduetatik kanpo	53,0	52,7
Ez nuen lanik egiten nuen momentuan	6,0	12,1

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentua.

² Europako Batzordeak eta Eurostatek proposatutako definizioaren arabera.

³ Lan-zentroan (iraupeneko mugarik gabe) edo hezkuntza-zentroan (edo antzeko batean) ikastaroetara joatea edo ikaskuntzako beste modalitate batzuk biltzen ditu. Horien artean, hauek aipa ditzakegu: mintegietara, jardunaldietara, hitzaldietara, kongresuetara eta abarretara joatea. Horien modalitateak presentziala edo birtuala izan daiteke.

Nabarmendu behar da lanean ari den biztanleriaren erdiak baino gehiagok (% 52,7) ikaskuntza-jarduerak egin dituela eta gehienbat edo beti lan orduetatik kanpo egin dituela. Biztanleriaren % 35,1ek ordaindutako lan-orduetan egin ditu ikaskuntza-jarduerak eta % 12,1ek ez zuen une horretan lanik egiten⁴.

Azken 12 hilabeteetan parte hartu duten ikaskuntza-jarduera kopuruari erreparatuz, biztanleriaren % 42,8k adierazi du jardueraren bat egin duela eta biztanleriaren % 43,8k nabarmendu du bi edo hiru ikaskuntza-jarduera egin dituela. Parte-hartze kopuruek behera egin dute lau jarduera edo gehiago (% 10,9) eta hamar baino gehiago (% 2,6) aipatzen direnean.

8. taula. Azken 12 hilabeteetan parte hartu duen ikaskuntza-jarduera kopurua

Ikaskuntzako jardueretan parte hartzen duten persona landunen %

	2016	2017
Jarduera bat	51,2	42,8
Bi-hiru jarduera	41,1	43,8
Lau-hamar jarduera	7,4	10,9
10 jarduera baino gehiago	0,3	2,6

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentua.

⁴ Aurreko 12 hilabeteetan egindako ikaskuntzako jarduerak dira; hori dela eta, horiek egiteko garaian, baliteke pertsona lanean ez aritzea (ikaslea, langabezia-egoeran, ordaindutako lana izateko interesik ez izatea eta abar) eta bai kontsultaren unean.

Titulua:	Biztanleria okupatuaren parte hartzea bizitza osoan zeharreko ikaskuntzan 53. dokumentua, 2017ko maiatza
Koordinazioa eta gainbegiratzea:	Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreekako Departamentua.Gipuzkoako Foru Aldundia
Egilea:	IKEI, research & consultancy S.A.
Landa-lana:	Datakey, S.A.
Ohar teknikoa	Laginareen diseinuaren eguneratzea; aldagai demografikoen, enpleguaren eta ikasketa mailaren doiketa. Lotura urtea 2016 eta aurreko urteetakoekin zuzenean alderagarriak ez diren emaitzak.